



Redes por
una nueva
política
Educativa

**Hezkuntza Lege Berri
Baterako Ideia Nagusien
Dekalogoia Eta Oinarrien
Dokumentua**



Hezkuntza Lege Berri Baterako Ideia Nagusien Dekalogoia Eta Oinarrien Dokumentua¹

1

Printzipioak eta helburuak

- a) Nahi dugun hezkuntza **hezkuntzarako eskubidean** oinarritzen da (**hezkuntza jaiotzetik eta bizi osoan zehar**), eta beste honako printzipio hauetan ere bai: berdintasuna, laikotasuna, aniztasuna, inklusioa, jasangarritasuna, autonomia, bizikidetza, parte hartze demokratikoa, elkartasuna, antiautoritarismoa, hezkuntzakidetasuna. Parte hartzean eta lankidetzan oinarritzen den ikaskuntza baten bidez, inoiz lehiakorra izango ez dena eta komunitate osoaren inplikazioa bilatuko duena.
- b) **Nahi dugun hezkuntzan**, lehentasuna duten helburuak dira: prestakuntza intelektuala, gure mundua ulertzeko eta haren hobekuntzan parte hartzeko; kultura anitzeko mundu batean hiritartasun arduratsu, kritiko, solidario eta demokratiko bat eraikitzeko prestakuntza; komunitatearen garapen emozionala eta haren ongizate pertsonal eta kolektiboaren bilaketa; sistema patriarkalaren ezabapena eta sexu identitate anitzekiko errespetua; ezinbestekoa dugun ingurune naturala ezagutu eta errespetatzeko prestakuntza; sormenaren eta estetikaren garapena eta haur bakoitzaren norbanakotasunari lotutako behar, erritmo eta intimitatearekiko errespetu sakona, erantzun egoki eta integral bat emateko hezkuntza arloan.

2

Hezkuntza, eskubide gisa

Hezkuntzarako eskubidearen unibertsaltasuna, **berdintasunean** eta, hortaz, **doakotasunean** oinarrituta. Hezkuntza publikoak soilik berma dezake hezkuntzarako eskubidea eta, ondorioz, gizarte kohesioa:

- a) **0-18 adin tarterako eskolaratze publiko eta doakorako eskaintza**, ikasle guztiei sistema publikoan (titulartasun eta gestio publikoko sistema) leku bat bermatuko diena.
- b) Finantzazioa kentzea pixkanaka itunpeko ikastetxe pribatuei. Titulartasun eta gestio publikoko ikastetxeen sare bakarra, pixkanaka itunpeko ikastetxe pribatuak, beren borondatez eta negoziazio bidez, integratuz joango dena. Bien bitartean, itun gehiago ez hezkuntza pribatuarekin, eta finantzazioa bertan behera uztea edozein motatako diskriminazioa eragiten duten edo doakotasuna bermatzen ez duten ikastetxeei.
- c) Eskola pribatuaren eta publikoaren auditoria. Kontrol sozial eta demokratiko handiagoa ikastetxeetan eta eskolaratze prozesuetan, eta gardentasun handiagoa exijitzea ikastetxeen funtzionamenduan.

(¹) La traducción del texto al euskera ha sido posible gracias a la colaboración de la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología de la Universidad del País Vasco (U.P.V./E.H.U).

3

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Eskolaratze goiztiarra bultzatzea, kalitatezko doako eskaintza unibertsal baten bidez, behar bezalako garrantzia emanez hezkuntza prozesuaren oinarrizko zutabe diren Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari, eta arreta pertsonalizatuan oinarritzen den Hezkuntza Muinbakarra bermatuz maila guztietan.

- a) **Haur Hezkuntza:** hezkuntza zentroen (ez asistentzia zentroen) sare publiko bat, titulartasun eta gestio publikokoa, haurren eskolaratze behar guztiei erantzungo diena (0-6 urte), Haur Hezkuntzako lehen zikloa hezkuntza sistemaren legedi orokorretan sartuz, eta batera garatuz 0-2 eta 3-5 urteko umeen eskolaratze unitatea.
- b) Ikasle/talde **ratioa** txikitzea, nazioarteko erakundeek aholkatzen dituzten balioetara, eta ikasleen beharrei egoki erantzutea.
- c) Irakasleen eta hezkuntza alorreko beste profesionalen kopurua handitzea, talde bakoitzeko eta irakasle bakoitzeko ikasle kopurua txikitzeko.
- d) Nahikoa zerbitzu eta baliabide jartzea ikasle guztien beharrei erantzuteko, haien garapen eta ikaskuntza erritmoaren arabera, oinarrizko hezkuntzan zehar.
- e) Ikasleen sailkapen eta hautapen goiztiarra saihestea, eta hezkuntza integral bat bermatzea, ikasleentzat balio bera izango duena. Derrigorrezko hezkuntzan, bakarra izango da etapa amaierako titulazioa, pixkanakako aukerakotasunaren kalterik gabe, ikastalde-gela taldekatze homogeneoak sortuko ez dituzten motibazioen arabera.
- f) Gizarte babes eta sustapenerako neurriak ezartzea hezkuntza alorrean, baita antolakuntza eta curriculum mailan ere, eskola absentismoari aurre egiteko.
- g) Oso egoera bakanetan bakarrik errepikatuko da ikasturtea derrigorrezko hezkuntzan. Errepikapenera iritsi aurretik, hezkuntza arloko laguntza eta errefortzu neurriak hartzea, ikaskuntza behar bereziak dituzten ikasleei begira.
- h) Beharrezko bideak sortzea gazteentzat, hezkuntza arloko jardueren bidez derrigorrezko bigarren hezkuntza bururaino eraman eta edozein motatako ikasketetara sartzeko modua izan dezaten.

4

LH eta pertsona helduak

- a) **Lanbide Heziketa:** LHko zentro integratuen sare publiko bat, prestakuntza zikloen behar adinako eskaintza egokia izango duena eta ongizateari eta ingurumen jasangarritasunari lotutako profilak bultzatuko dituen bereziki, eta ez bakarrik enpresen berehalako interesari lotutako profilak.
- b) **Helduentzako hezkuntza:** sare publiko bat zabaltzea, Hezkuntzaren menpekoo eta ez Gizarte Ongizatearena, eskaerei erantzuteko behar bezala prestatutako irakasleak izango dituen.

5

Hezkuntza inklusiboa

Desberdintasuna balioztat hartzea, beharrezkoak diren baliabideak esleituta behar duenari.

- a) **Hezkuntza jasotzeko doakotasuna:** oinarritzko irakaskuntzaren doakotasunaren barruan sartuko da ikasleek eta irakasleek erabiltzen dituzten liburuak, baliabideak, euskarri teknologikoak eta material didaktikoak ikastetxe publikoei ematea, baita eskola garraioa ere. Sartuko dira ere, hala behar bada, jantoki, lekualdatze eta egoitzarako laguntzak, eta behar dituzten ikasleentzako soldata bekak. Saihestu behar da seme-alabek ikasketak utzi behar izatea, familiaren diru sarreretan laguntzeko. Doakotasuna derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza ez-unibertsitariorako. Beharrezkoak diren bekak ematea, herritar guztiek unibertsitateko ikasketak egiteko aukera izan dezaten, eta tasak berehala jaitea. Hezkuntza publikoaren erabateko doakotasuna lortu nahi izatea, lehen haurtzarotik unibertsitatera.
- b) **Ikastetxea eta curriculumak inklusioaren ikuspegitik antolatzea:** irakaskuntza partekatuak gela berean, taldeen malgutasuna, beharretara egokitutako irakasleak eta profesionalak... Ez bereizi ikasleak, besteak beste, haien gaitasunak, sexua, kultura aniztasuna, gizarte jatorria direla eta. Irakasleak eginkizun horietarako prestatzea, eta horretan jardutea behar bezala aitortzea.
- c) **Estatuaren izaera plurinazionalak** autonomia erkidego bakoitzaren berezitasunak onartuko ditu. Aintzat hartuko dira haien alderdi komunak eta desberdinak, baita haien hezkuntza lege propioak ere, zeinak estatu mailako legeek zehaztutako lege esparruan jasota baitaude.
- d) Derrigorrezko hezkuntzan **ikasle guztien eskola arrakasta** lortzeko neurrien plana egitea, ikasketetan zailtasunak dituztenentzako laguntza jarduerak zehaztuta, zailtasunok hauteman eta berehala. Zailtasunak dituzten eta/edo gizarte desabantaila egoeran dauden ikasle gehiago dituzten gune eta ikastetxeentzako baliabideen hornidura areagotzea.
- e) **Hezkuntza testuinguruak:** gizarte politika aktiboak; gizarte inbertsioa egitea, desberdintasuna saihesteko hezkuntza esperientzia ez-formaletan, familia eta lan bizitzaren kontziliazioan eta pertsonen etengabeko prestakuntza integralean lagunduko duten lan politikak bultzatuta eta hezkuntza sistema eratuta.

6

Ideia partikularrik gabeko curriculumak

- a) **Laikoa:** izaera laikoa hezkuntza sistema osoan errespetatu behar da; sistema horrek kontzientzia askatasuna errespetatu, dogmarik gabe hezi, eta eskola curriculumetik doktrinatze modu oro ezabatu behar du. Horrenbestez, erlijioak, bere forma konfesionaletan, eta haren ekintzek eta ikurrek curriculumetik eta eskola eremutik kanpo geratu behar dute. Horretarako, Vatikanorekiko konkordatu indargabetuko da, eta geletan doktrinatze erlijiosoa egotea ahalbidetzen duten konfesioekiko akordioak ezabatuko dira.
- b) **Bizitzarako:** curriculumak zientziak eta haren aplikazio teknologikoak, giza zientziak, gizarte zientziak, arteak, herri jakintzak eta eguneroko bizitza osatzen duten jakintzak bildu eta barneratuko ditu; hartara, baliagarria izango da pertsonak, natura eta komunitate bizitza... zaintzeko, arazo korapilatsuen deliberazioa erraztuko du, eta gure ingurunea ulertzen lagunduko digu, herritar informatuak eta kritikoak eraikita.

- c) **Kultura anitzekoa:** autonomia erkidegoetako kultura eta hizkuntza dibertsitatea bereziki errespetatzeko, beharrezkoa da haren curriculum autonomia onartzea, zeina arlo hauetan baitago finkatuta: estatua, autonomia eta ikastetxea. Era berean, kulturartekotasuna eta ikuspegi inklusiboa aintzat hartuta eratu behar dira curriculumak, familia migratzaileetatik eta gutxiengoetatik datozen ikasleen hizkuntza eta kulturaren aitortza ere bultzatuta. Curriculumak aintzat hartuko du generoa, ekologia eta sexu dibertsitatearen bermea.
- d) **Integrala:** curriculumaren diseinua eta haren garapena ez da adieraziko gaitasunez betetako "gutxiengo" edukien zerrenda modura, baizik eta modu global, integratu eta konplexu batean, arazoak eta gizarte, ingurumen eta etika egoera nagusiak konpontzeari begira. Behar adina garrantzia emango zaie musika hizkuntzari, gorputz mugimenduari eta adierazpen artistikoari. Jakintzaren egungo konpartimentazioaren ordeztu, proposamen integral, malgu eta diziplinari (edo globalizatu) bat egingo da, hezkuntza komunitateak adostuko duena eta ikasleen interesak eta beharrak abiapuntutzat hartuko dituen; era berean, ikasleak oinarritutako metodologia aktibo eta parte hartzaileak erabiliko dira, ikasleek batera eraikitako jakintza barneratuta, eta ikaskuntza erritmoak errespetatuko dira.
- e) **Testuinguruari egokitua:** oinarritzko curriculumak hezkuntza etapa bakoitzaren berezko ezagutza arloak edo eremuak izango ditu, eta tarte zabala utziko du, hezkuntza komunitateak egokitu eta gara dezan.
- f) **Ezagutza irekia eta partekatua bultzatuko duena:** kontuan hartuko ditu IKTen gizarte erabilera berriak, sare sozialen eginkizun garrantzitsua eta software libreko komunitateak, lankidetzaren kultura eta ezagutza irekia sustatzeko. Testu liburuaren hegemonia zalantzan jarri, eta baliabide didaktikoen eta digitalen bankuen sorrera bultzatu da, eta laguntzak emango dira, curriculum proiektu eta material alternatiboak ezartzeko, askotariko euskarritan.
- g) **Ez-leihakorra:** ikaskuntza homogeneizatzeko eta ikastetxeen hierarkizazioa ekar dezaketen rankingak osatzeko xedea duten kanpoko probak ez dira egingo.
- h) **Ekologikoa:** lurraldean errotutako curriculumak, ingurune hurbilari lotutako jarduerak eta jasangarritasunari, bizi iraupenari eta etika ekosozialari lotutako edukiak izango dituen. Ikastetxeak eraiki eta egokituko dira, aztarna ekologikoa gutxitzeari eta energiaren alferrikako gastua saihesteari begira. Hezkuntza espazio berdeak sortuko dira ikastetxeen barruan, hala nola eskola baratzeak, baso "jangarriak" eta zementurik gabeko arboladiak. Garraio sistema jasangarriak antolatuko dira, ikastetxeetara oinez eta bizikletaz joateko. Bertako janari ekologikoen kontsumoa bultzatuko da, eskola jantokietan.

7

Irakasle konprometituak eta aitortuak

- a) **Irakasleen estatutua**, sindikatuarekin adostua. Irakasleen lan baldintzen oinarria ezarriko duena; enpleguaren prekarizazioa desagerraraziko duena, irakats jarduna gainditzen duten zereginak betetzeko betebeharrak finkatuta; eta irakasleei egonkortasuna emango diona, ikastetxeetako hezkuntza proiektuen inguruan lan egingo duten talde egonkorak osatzeko. Bitartekotasuna ahalik eta gutxien erabiltzea irakasleen postuak betetzeko sistema gisa.
- b) **Hasierako prestakuntza**: formakuntza pedagogiko eta praktikoa sendoa bermatuko duena, arreta dibertsifikatua eskaini ahal izateko gero eta aniztasun handiagoa duen ikasleriari, gaiari buruzko ezagutza, ezagutza didaktiko espezifiko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuekin lotutako ezagutza orokorrak orekatuta eta bateratuta. Eta hori guztia ereduzko esperientzia praktikoen testuinguruan, non zentzua eta funtzionaltasuna izango dituzten prestakuntzaren diziplinazko osagaiek. Ikastegien hezkuntza berrikuntza erraztuko duen prestakuntza; taldeko lana sustatuko duena, eta eskakizun kultural nahiz pedagogiko berriei begira jarrera positiboa eta sormenezkoa izatea bultzatuko duena. Horretarako formakuntza baliokidea eskaintzea, irakasle kidego bakarra bermatuko duten graduak eta graduondokoak bilduko dituena. Hasierako prestakuntza eskaintzen duten unibertsitateko irakasleen berrikuntza eskatzea.
- c) **Irakasleen hautaketa**: irakasle lanbidean jardun nahi duten hautagaiak zorrotasun handiagoz hautatzea, ezagutza profesionalei buruzko proba zorrotzak eginez eta hautatutako tutoreen eskutik praktikan egindako murgilketa ebaluatuz. Kontratazioarako poltsetan eta oposizioetan lanbidean sartzeko funtsezko faktoretzat hartzea lanean jardundako denbora, balorazio ona jaso duena. Horrekin batera, kontrol ekintzak ere egitea, irakasle izateko gaitasun profesionala ezagutzeko.
- d) **Etengabeko prestakuntza**: nahitaezkoa eta eskola orduen barruan. Irakasleen Zentroak edo antzeko beste erakunde batzuk garatzea, irakasleen garapen profesionala eta hobekuntza programak egonkortzeko. Irakasleen sare birtual eta presentzialak eratzea, esperientziak trukatzeko.
- e) **Irakasle ibilbidea**: pizgarri profesionalen sistema bat bermatuko duena, baita sustapen profesionaleko eredu bat ere, zeina mesedegarria izango den konpromiso eraginkorra hartzeko irakaskuntzaren berrikuntzarekiko eta hobekuntzarekiko. Irakasleen lanari duintasuna eman behar zaio, baina ez hezkuntzaren judizializazioa ekarriko duten aginpidezko legeekin.

8

Autonomia pedagogikoa eta hezkuntza partaidetza eskolako antolakuntzan

- a) **Ikastetxeen autonomia** barne antolakuntzarako, arlo pedagogikoan eta baliabideen erabileran, ikasleen eta ingurunearen eskaeretara, ezaugarrietara eta beharretara egokitu ahal izateko, Eskola Kontseiluen eskumenen bidez; kontseiluak izatea, hain zuzen ere, ikastetxeetako egiazko gobernu organoak, ikastetxeen artean diskriminaziorik izango ez dela bermatuko duen ekitatezko esparru batean.
- b) **Autonomia pedagogikoa**, bai irakasleena, bai zuzendaritzarena, hezkuntza komunitateak adostutako hezkuntza proiektua garatu ahal izateko, eta, horretarako, haien beharrei eta proiektuei erantzungo dieten kudeaketa ekonomikoko alderdiak erregulatzea.
- c) **Hezkuntza partaidetzako legea**, non jasota egongo den hezkuntza komunitateko sektore guztiak modu ekitatibo eta proportzionalan

ordezkatuta egongo direla ikastetxeetako eskola kontseiluetan, udalerrikoetan eta autonomikoetan. Lege horrek ere jaso beharko du kontseiluak izango direla ikastetxeetako gobernu organoak eta harremana izango dutela sozializazio prozesuarekin lotuta dauden beste gizarte eragile batzuekin.

- d) Partaidetzazko kultura sustatzea 0 urtetik. **Asoziazionismoa** eta ikasleen nahiz guraso elkarten partaidetza demokratikoa sustatzea.
- e) **Irakasleen eta familien arteko partaidetzarako** mekanismoak egituratzea ikasgelan, norabide biko komunikazioa ezarriz, ikaslearen interes gorenari erantzuteko.
- f) **Ordezkaritzako eta kide anitzeko zuzendaritza**, borondatezkoa eta berriztagarria, karguaren jardunean mugatua eta hezkuntza komunitatearen ordezkariak izango dituen. Ikastetxeko hezkuntza komunitateak modu demokratikoan hautatua. Administrazioarekiko autonomia eta hezkuntza komunitateari kontuak eman behar dizkiona. Lidergo pedagogiko partekatua indartzea. Zuzendaritza taldeek kudeatuko dituzte kide anitzeko organoek hartutako erabakiak.
- g) **Hezkuntza komunitateak partaidetza sustatuko du**, baita eztabaida pedagogikoa, taldeko lana eta ikastetxe barruko nahiz kanpoko lankidetzaren ere, eredu lehiakorra alde batera utzita. Hortaz, beharrezkoa izango da ordutegiak aldatzea, koordinazio bilerak antolatu eta egiteko, eta bilera horietarako espazioak sortzea.
- h) **Gizarte testuingurua hezkuntza dinamikan txertatzea**: auzoetako gizarte erakundeak ikastetxeetako egunerokoan txerta daitezen sustatzea, eta guraso elkarten nahiz ikasleen gizarte mugimendu asoziatiboak bultzatzea.
- i) **Eskola orduetatik kanpo ikastetxea gizarteari irekitzea**: eskola osterako hezkuntza programa; horrek ez du esan nahiko eskola luzatzea, baizik eta prestakuntzazko jarduera eta jarduera kultural interesgarrien eskaintza zabala egitea.

9

Hobekuntzarako hezkuntza ebaluazioa

- a) Ebaluazioa hezkuntza prozesuak hobetzeko ezinbesteko tresna gisa erabiltzea, ikasle bakoitzaren berezitasunak eta beharrak kontuan hartuta.
- b) **Kanpo ebaluazioen bidez** hezkuntzako programei eta politikei buruzko informazioa bilduko da, hezkuntza sistema ezagutzera emateko, hobekuntzak egite aldera. Ez dira inolaz ere egingo ezagutzen estandarizazioa, ikastetxeen arteko lehiakortasuna eta sailkapenak sustatuko dituzten ikasleen errendimenduari buruzko kanpo ebaluazioak.
- c) Ikastetxeek laguntza jasoko dute euren hezkuntza programak hobetzeko ebaluazioak egiteko, eta hezkuntza komunitateko eragile guztiek parte hartuko dute ebaluazio demokratiko batean. Era berean, irakasleen banakako autoebaluazioa eta irakasle taldeen ebaluazio kolektiboa sustatuko dira.
- d) Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuek aholkua eta laguntza emango dizkiote hezkuntza komunitateari, bai eguneroko jardunari dagokionez, bai autoebaluazio prozesuei dagokienez.

Konstituzioak bermatutako finantzaketa

- a) Hezkuntza bermatu beharreko oinarritzko eskubide bat da, eta behar adinako aurrekontu finantzaketa jaso behar du: **barne produktu gordinaren % 7.**
- b) **Konstituzioan jasotzea Hezkuntzara bideratutako barne produktu gordina,** hezkuntzarako gutxieneko gastutzat ezarrita gera dadin Konstituzioan.
- c) **Hezkuntzako Konpentsazio Funtsa,** lurralde osoan Haur Hezkuntzatik Goi Mailako Irakaskuntzaraino hezkuntza eskubidearen ekitatea bermatuko duten jarduerak finantzatzeko.
- d) **Oinarritzko irakaskuntzaren doakotasunak** barne hartuko du irakasleek zein ikasleek erabili behar dituzten liburuez, baliabideez eta material didaktikoez hornitzea ikastetxe publikoak, baita eskola garraioa eskaintzea ere, eta jangela zerbitzurako laguntzak, hala badagokio.

Redes por una Nueva Política Educativa.

2017/09/18



Redes por una nueva política Educativa

Gizarte erakundeak

Amesti Educació (Associació de Mestres Grup de Treball per la Infancia), Asamblea Marea Verde Madrid, Colectivo Infancia, Foro de Sevilla, Europa Laica, Junta de Portavoces de Educación Infantil, Mareas por la educación pública, Ciudadan@s en defensa de la Escuela Pública, Proyecto Roma, Plataforma Crida de las Illes Balears (madres, padres, estudiantes y profesorado), Círculo Podem Educació Catalunya, Asociación IncluyE, Red IRES, 'Movimiento Cooperativo de Escuela Popular' (MCEP), Asociación IncluyE, la Coordinadora de Universidades Públicas de Madrid (CUPUMA), la Plataforma por la Justicia Fiscal, 'Estudiantes en Movimiento', y 'Stop Ley Wert/La Educación que nos une' conformada por los colectivos y plataformas: %ATTAC España, OXFAM Intermón, Confederación Estatal de Movimientos de Renovación Pedagógica, Plataforma en Defensa de la Educación Infantil 0-6, Ecologistas en Acción, Foro Mundial de Educación, Rosa Sensat, Yo Estudié en la Pública.

Ikasleen erakundeak

Sindicato de estudiantes, Federación de estudiantes progresistas del Estado y Colectivo Estudiantil Salmantino.

Gurasoen erakundeak

Confederación Española de Padres y Madres del Alumnado.

Sindikatuak

Federación de Enseñanza de Comisiones Obreras, Confederación Stes-intersindical y Federación de Enseñanza de CGT.

Alderdi politikoak

Partido Socialista Obrero Español, Izquierda Unida, Podemos y Esquerra Republicana.

© Redes por una nueva política educativa, 2015 Este documento se encuentra bajo una Licencia Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 3.0 Unported. Puede ver una copia de esta licencia en <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/> Esto significa que Ud. es libre de reproducir y distribuir esta obra, siempre que cite la autoría, que no se use con fines comerciales o lucrativos y que no haga ninguna obra derivada.